

## Funtsezko jarduerak

Gure jarduera nagusia, arazoak konpontzearena izango litzateke, batez ere elikadura-nahasteekin, kirolarekin, osasunarekin eta osasun mentalarekin, fisikoarekin eta emozionalarekin zerikusia duten arazoak. Gainera, COVID-19ak sortutako pandemiaren ondorioz agerian geratu diren bestelako arazoak edota gabeziak konpontzea da gure beste helburuetako bat.



Horretarako, hasieran gure zerbitzuarentzako egokienak izango liratekeen profilak aipatu genuen, eta kasu honetan, egokiena profil horietan arreta jartzea eta inguruan dituzten arazoak konpontzea izango litzateke; hala nola: nutrizioari buruzko ezagutza eza, osasun mentalarekiko informazio eza edo horrekin zerikusia dituzten problematikak, ariketa fisioterapeutiko desberdinak, aldaketa batekin hasteko motibazio falta, helburuak lortzeko laguntza eta iraunkortasun beharra, etab.

Horretarako, gure enpresaz gain, eskainiko ditugun lau zerbitzuetan (fisioterapia, nutrizioa, psikologia eta kirola) tituludun eta espezializatutako pertsonak izango ditugu. Pertsona horiek, ezagutzak izateaz gain, beren zerbitzua egin ahal izateko egokiak izan beharko dute, eta prestakuntza bat ere jaso beharko dute. Prestakuntza hori funtsezko baliabideak atalean aipatzen dugunari buruzkoa izan daiteke. Hau da, gure langileek ere prestakuntza bat jaso beharko dute, eta, horrekin, espezializatu diren osasun-arloko tituluaz gain, ikastaro bat ere izango dute, eta ikastaro horretan espezializatu ahal izango dira ekonomiaren arloan, administrazioaren arloan, marketinaren arloan...

Azkenik, diru-iturrietan aipatzen dugun bezala, gure online webgune propioa izatea ere pentsatzen ari gara, eta bertan erabiltzaileek hainbat informazio kontsultatu ahal izango dute (dagoeneko xehatuta dago). Orduan, hasieratik erabaki dugu onena diru kopuru bat inbertitzea izango litzatekeela, webgune praktikoa eta estetikoa eduki ahal izateko, horrela ahalik eta arazo gutxien sor daitezten. Jakina, lan hori espezialisten esku utziko genuke, haiek inbertituko baitute gure dirua plataforma ahalik eta problematiko gutxien egiteko. Beraz, ez dugu aurreikusten hilero edo astero inolako mantentze-lanik egin behar izatea webgunerako. Baina une jakin batean plataformak huts egiten badu, arazo hori konpontzen lagun diezaguketen espezialistak kontratatuko ditugu. Horrela, detekzio goiztiar baten bidez, arazoa ahalik eta azkarren konponduko genuke, erabiltzaileek erabiltzen duten orduan akatsik egon ez dadin.

Plataformari dagokionez ere, gutako batek egingo dituzten ikastaroekin egingo dugu publizitatea. Horrela, plataformaren publizitatea egitea lortuko genuke, ahalik eta kostu txikienarekin. Era berean, gure langileak direnez webgunean publizitatea egiten ari direnak, informazioa zehatzagoa izatea lortuko genuke, gure proiektuak nola funtzionatzen duen ere espezializatuta egongo bailirateke.